

Baratzezaintza ekologikorako gida

Nola babestu gure baratzak ekologikoki?

Euskal Herriko baratzezainen esperientzia-bilduma

salneurria

12€

Dokumentu hau

Jean François BOUCHY
baratzezain eta formatzailearekin elkarlanean garatu da.
Bere omenez zabalduko dugu.



• Oidioa (hauts zuria edo urdina)



Zein landaretan ? Leveillula taurica tomatearen Oidio-a, Podosphaera phusca pepinoaren Oidioa, Erysiphe polygoni ilarraren Oidioa....

Onddo espezie askoren ohiko izena da Oidioa. Sintoma eta garapen-kondizio antzekoak aurkeztzen dituzten arren, espezifikoak dira.



Zer ondorio ?

Orban horituak hosto helduen gainazalean; hauts zuria hostoaren bi aldeetan. Denborarekin, ukitutako aldeak belzten dira, lehortuz eta oso hauskor bilakatuz.



Garatze baldintzak ?

- 10 eta 35° C bitarteko T°. Optimoa 23 eta 26 °C artean
- Eguna eta gauaren artean temperatura aldekatu handiak onddo hauen agerpeneko mesedegarriak dira.
- Hezetasuna % 50 eta 90 artean. Euriek gaixotasunaren garapena oztokatzen dute, hostoetan sortzen den ur geruza dela eta.



Zer egin ?

- Sufre tratamendu sendagarriak. 35°C-tik gora fitotoxikoa dela kontuan hartu.
- Esne ura edo gatzurarekin ere tratatu daitezke landareak

• Botrytis cinerea : usteldura grisa



Zein landaretan ? Edozein landaretan



Zer ondorio ?

Hauts grisa, ehunen biguntzea. Parasito hau ez da espezializatua, landaketa askotan agertzen da.



Garatze baldintzak ?

- Kondizio hezeak eta argitasun eskasia, 15 eta 20°C arteko temperaturarekin.



Zer egin ?

- Landaketak ondo aireztatu higrometria gutxiagotzeko.
- Bentonita buztinarekin edo silizean aberatsa den hondarrarekin hautsezatu.



• Akaroak, armiarma gorria : *Tetranychus urticae*



Zein landaretan ?

berenjena, pepinoa, babarruna, tomatea, leka negutegietan

→ **Ezaugarriak** : arazo berdinak sorrarazten dituzten Tetranychus- tisserand-en bi forma ezberdin, aurkitu daitezke :

• **Aldaera horia**, gutxi gora behera berdexka, zonalde meridionalean aurki daitezke

• **Aldaera gorria**

Udazkenean, kolore laranja duen beste aldaera batean azaltzen da, orbanik gabe, *T.urticae* -ren hibernatze formak direnak. Helduek, bizkarrean, bi orban ilun bereizgarri dauzkate. 4 pare hanka.

→ **Luzera** : Emeak, 0,5 mm luzera neurtzen ditu; arra, txiki eta lirainagoa, 0,3 mm-ra baino ez da iristen.

Arrautzak esferikoak dira, 0,1 mm baino txikiagoak, leunak, zurixkak eta transluzidoa arrautzak jarri ondoren. Eklosioaren aurretik, itxura horixka hartzen dute. Larbak, helduaren itxura berekoak, baina txikiagoak.



← **Luzera**
0,3 - 0,5 mm



Zer ondorio ?

→ Ziztaden eraginez, hostotzak kolorea galtzen du, brontze kolorea hartuz. Ehun laranja bat agertzen da, hostoen hertzeetatik hasten dena.

→ Hostoen aktibitatea txikitzen dela eta, landareak hil egiten dira.



Garatze baldintzak ?

→ Temperatura altuak/hezetasun gutxi. Garapena 23 eta 30°C artean ematen da.

→ 12°C-tik behera ez dira garatzen, 40°C baino gehiago hilgarriak dira beraientzat.

→ Hirusta eta beste belar asko kutsadura-fokuak dira.

→ Landare-dentsitate altua.



Hibernazioa : negutegien azpiegituretan, posteetan, tutore soketan.



Zer egin ?

→ Ingurua garbi mantendu;

→ Egituren garbiketa, landaketen ertzak, inguruak;

→ Landaketak aspertsioz ureztatu, eta ondore, hezetasun altuegia dela eta ondokoak ager ez daitezen, aireztatu.

→ Sufrearekin ihintzatzeak akaroak geldiarazteko efektua eragiten du, baina aldi berean fauna lagungarria ere uxatzen du.

→ Baratzuri zukua : uxagarria da.

→ BBI : *Phytoseiulus persimilis*, *Neoseiulus californicus*.

Mamestra Brassicae : Azakien noktuidoa



Zein landaretan ? Kruziferoak

→ **Ezaugarriak :**

• **Helduak** aurreko hegalek 40-45 mm-ko luzera daukate eta berdeka ilunak dira. Atzeko hegalek, gris argiak.

• **Arrautzak** 20-30 inguruko taldeetan jartzen dituzte, hostoen azpiko aldean.

• **Larbak** 40-45 mm-koak dira. Ilerik gabeko gorputza, berde eta gris iluna, marra zurixka batek zeharkatua. Segmentu bakoitzean, karratu bat marrazten duten 4 puntu beltz ikusten dira. Tximeletak maiatza- ekainean azaltzen dira.



→ **Zikloa :**

2 generazio urteko: 6 larba estadioak 30 egunetan garatzen dira.

Bigarren hegaldia uztaila bukaeratik iraila hasiera arte luzatzen da. Beldarrak abuztua eta urria bitartean garatzen dira.



Zer ondorio ?

→ Kalteak batez ere ekainean sortzen dira. Gero, irailean.

Beldarrek hosto kantitate garrantzitsu bat suntsitzen dituzte, eta beren gorotzak azaren zati zentrallean metatzen dira.



